

LOPE AGIRREREN BIOGRAFIARAKO DATU BERRIAK.

Lope Agirre, mendeetan zehar traidoretzat hartua, azken mende honetan ia heroi mailara jaso, asko esan da, asko idatzi da pertsonaia honetaz, bere bizitza legenda bihurtzeraino. Abenturazalearen, erreboltariaren eta, batez ere, Amerikan Erregeri ausarki oldartu zitzaion lehen konkistatzailearen irudia indartsu iritsi zaigu, bere hanka herren, gorpuzkera trakets eta izaera urduriarekin batera. Hala ere, pertsonaia hau ezagutzera hurbildu diren biografo eta historialariek ezin izan dute ezkutatatu Loperen bizitzak dituen ilunguneez sortu dieten egonezina. Izan ere, askotxo dira Agirreren biografiak erantzunik gabe uzten dituen galderak.

Non jaioa da? Nortzuk ziren bere gurasoak? Ba ote zuen anai-arrebarik? Nolakoa zen bere familia, aberatsa, pobrea? Ikasketarik burutu ote zuen? Ez dirudi oso normala bere garaietan hautsak horrenbeste astindu zituen konkistatzaile batek, *Espania osoan bere izena denen ahotan zebilenean*, eta bera-gandik oso hurbil bizi izandako zenbait espedizio-kide bere bizitzako azken urteak zehatz-mehatz kontatuak utzi ondoren, inork ezer ez jakitea bere haurtzaro eta gaztaroari buruz. Oso gordean zuen, nonbait, bere bizitzako aro hori. Francisco Vazquez-ek, El Dorado-ko espedizioan parte hartutakoak, honela deskribatu zigun Lope:

Era este tirano Lope de Aguirre hombre casi de cincuenta años, muy pequeño de cuerpo, y poca persona; mal agestado, la cara pequeña y chupada; los ojos, que si miraba de hito, le estaban bulliendo en el casco, especial cuando estaba enojado. Era de agudo y vivo ingenio, para ser hombre sin letras. Fue vizcaíno, y según él decía, natural de Oñate, en la provincia de Guipúzcoa. No he podido saber quién fuesen sus padres, más de lo que decía en una carta que escribió al rey don Felipe, nuestro señor, en que dice que es hijo-dalgo; más juzgándolo por sus obras, fue tan cruel y perverso, que no se halla ni puede notar en él cosa buena ni de virtud.¹

Halaxe da, bai, Lopek berak 1561. urtean, heriotza iritsi baino hilabete batzuk aurrerago, bere burua desnaturalizatuz Felipe IIari zuzendutako gutun ospetsuan, oñatiartzat eta aitoren semetzat aurkeztu zion bere burua:

Lope de Aguirre, tu mínimo vasallo, cristiano viejo, de medianos padres, hijo-dalgo, natural vascongado, en el reino de España, en la villa de Oñate vecino, en mi mocedad pasé al mar Océano á las partes del Pirú, (...)²

Baina Loperen hitza baino ez dugu. Ez da ez eliz liburuetan ez protokoloetan ez beste inolako izkribu sinesgarritan aurkitu Lope Oñatin jaio edo bizi izan zela froga dezakeen dokumenturik. Araoztarra zelako hipotesia, Ignacio Zumaldek³ araoztarren eta Loperen izaeren arteko antza oinarri hartuz plazaratua, Zumaldek berak oinarri sendorik gabeko teoria zela aitortu

¹ Vázquez, Francisco, 1561, *Relación de todo lo que sucedió en la Jornada de Omagua y Dorado hecha por el Gobernador Pedro de Orsúa* in Escandell Tur, Neus eta Mampel González, Elena, 1981, *Lope de Aguirre. Crónicas. 1559-1561*, Universidad de Barcelona, 203 o. eta hh.

² Gutun hau osorik irakurri nahi izanez gero, ikus: Lacarta, Manuel, 1998, *Lope de Aguirre, el Loco del Amazonas*, Alderabán, Madrid, 177-182 oo.

³ Zumalde, Ignacio, 1963, "Lope de Aguirre, oñatiarra universal" in Askoren Artean, *Lope de Aguirre descuartizado*, Serie la Academia Errante, San Sebastián.

zuen. Baina ziurtzat zuen Oñatikoa zela, nahiz, esan bezala, oinarri bakarra Lope beraren hitza izan.

Egia esateko, Loperen biografian dokumentatu daitezkeen pasadizoak gutxi dira: 1536. urtean Espainiako Erreginak salbokunduktoa edo ibiltzeko baimena sinatu zion Perura salbu eta inolako arriskuren beldurrik gabe joan zedin; 1539. urtean, dirurik gabe eta morroi beltz bat lagun zuela Ameriketara zihobala, bere izena jaso zen Pasaiarien Liburuan; bere bizitzako azken hiru urteak, 1559tik 1561era, ederki azalduak datoz bere garaiko hiru idazlek idatzitako kroniketan; kronika hauetan aurki daitezke Lopek berak idatzitako gutunak ere⁴. Loperen biografiara hurbildu diren historialariak, dokumentu eta idatzi hauetan ageri diren datuak oinarri harturik eta Perun izandako gertakariak kontuan izanik, pertsonaiaren bizitzaren gora beherak harilkatzen saiatu dira, bibliografia oparoa osotuz.

Dena dela, Loperen biografiak galdera asko uzten dizkigu oraindik erantzun gabe eta, gure ustetan, Felipe II.ari igorritako gutunean bere buruaz egin aurkezpenean zerbait ari da ezkutatzen. Zer, baina? Hona hemen galdera honi argi egin diezaiokeen testu bat, *Ibarguen-Cachopin Kronika* argitaragabeen datorenna:

Uno deste apellido de Aguirre, llamado Pedro de Aguirre, que fue vezino del valle de Aramayona, en tiempo del enperador Carlo quinto nuestro señor de gloriosa memoria, se llebantó con una parte de la India, porque deseando venir de allá a su tierra de acá porque estava muy rico y balido, aunque pidió liçençia para ello dibersas bezes, no se la quisieron dar, por lo cual se amotinó y, juntándose con algunos de su cuadrilla y allegados, se apoderó de una gran parte de la tierra, de tal suerte que se llamava rey. Y a cavo de poco tiempo, no le suçediendo las cosas conforme su boluntad deseava, fue preso juntamente con una hija suya, a la cual él mató con una daga,

⁴ Escandell Tur, Neus eta Mampel González, Elena, 1981, *Lope de Aguirre. Crónicas. 1559-1561*, Universidad de Barcelona.

diçiéndola que más balía que muriese siendo hija de rey que no que la llamasen después hija de traidor.

Este Pedro de Aguirre, como digo, fue vezino e natural del balle de Aramayona, de la anteiglesia de Sant Estevan de Urívarri, y como su padre tuviese otros hijos en quien dexó su casería y açienda, le puso a este moço a çer çapatero en la çiu-dad de Vitoria, donde forçó una donçella, por lo cual fue con-denado a pena de borca y açer cuartos. [fol.16r.] Y haziéndose diligençias defensibas sobre ello, y aviendo contentado a la par-te, se tuvo horden e modo como el carçelero se descuidase, y con esto el moço uyó e pasó en Indias, donde se casó y enriqueçió. E por su sobervia le suçedió lo que abéis oido, donde pagó con la vida lo que escusó en Vitoria. Éste tomó el apellido de Aguirre sólo porque él se crió en la casa de Aguirre de Urívarri de Aramayona, e no por que fuese deçendiente de ninguna casa de Aguirre, porque su madre, después de muerto su padre, fue y se casó segunda vez a esta casa de Aguirre con Estivaliz de Aguirre, dueño desta casa, siendo ella primero casada en el ba-rrio de Saola en la anteiglesia de San Joan de Ascoaga.

Y este Pedro de Aguirre, porque la casa de su dependençia donde nació y la casa de Aguirre donde se crió, por ser anbas a dos deudoras y tributarias al señor de Aramayona, por esto allá en las Indias sienpre dixo e publicó que hera natural viz-caíno e dependiente legítimo de la casa y solar de Aguirre del lugar de Gabiria del prinçipado de Areria, siendo al contrario la berdad, por pasar el cuento deste caso como está referido .⁵

Gure ikerketen arabera, leito hauek Cachopin kronikagileak idatzi zituen, García Fernández Cachopin izeneko historiagilea-ren semeak, 1580. urtetik 1598. urtera bitartean. Cachopindarrek Laredoko herrian zuten sorburua, baina kronikaria, Cachopin semea, Sibilian bizi izan zen eta ondoren Kordoban, eta hiri ho-

⁵ Cachopin eta Iburguen, *Istoria General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaína*, cuaderno 111 (eskuizkribu argitaragabea: Tomo L-52, Bizkaiko Foru Artxibategia) (prestatzen ari garen edizioan: II liburua, 324 o.).

netan bizi zela konposatu zuen Juan Iñiguez de Ibarguen Ibaruriko eskribauaren laguntzaz *Istoria General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaína* izenburua daraman lana, *Ibarguen-Cachopin Kronika* izenaz ezagunagoa⁶.

Gaur ezagun dugun kronika honen kopia bakarra Ibaruriko Oka auzuneko Ibarguen etxean geratu bide zen Juan Iñiguez hiltzean. XVIII. mendearen bukaera aldera Markinako Mugartegi etxean zegoen eskuizkribua, ziurrenik herentzian jaso, oso egoera txarrean. Mugartegiko jaunak J. R. Iturrizari eskatu omen zion bere liburutegia arakatzeko eta atontzeko, eta historiagile handiak *Kronikaren* koaderno eta paper solteak bildu ondoren tomotan banatu eta josi zituen. Iturrizak erruz erabili zituen kronika honetako materialak bere lanak burutzerakoan⁷. Esan liteke Iturriza izan dela *Kronika* goitik behera irakurri eta aztertu duen bakarretakoa. Hain zorrotz aztertu zuen eskuizkribua, ezen folioen marjinetan maiz idatzi baitzituen oharrak bere eskuz, Ibarguen eta Cachopinek diotena zuzenduz edo osotuz. Gorago eman ditugun lerroak datozen folioan ere idatzi zuen Iturrizak bere ohartxoak: "Lope de Agirre era de Oñate" dio oharrak, garai hartan Agirreren jatorriari buruz uste eta onartzen zena aintzakotzat hartuz.

Iturrizaren ondoren kronika hau esku artean izan zuten ikerleek artean (Mogel, Labayru, Urquijo, Darío de Areitio, Leguizamón, Guerra, eta abar) inork ez ditu lerro hauek aipatu, batzuek ez zutelako, beharbada, Loperen bizitzan interes handirik eta beste batzuek oso helburu zehatzak zituztelako

⁶ Kronika ez zen sekula inprimatu, eta jatorrizko lana 184 kuadernoz osatua bazen ere, gaur egun aurki daitekeen kopia bakarrak 63 kuaderno baino ez ditu, Ibarguenen eskuz idatziak gehienak. Kopia horren zatirik handiena Bizkaiko Foru Artxiboan gordetzen da 5 tomotan banatua, L-49tik L-53ra; beste zati txiki bat Madrilgo Biblioteca Nacional-en aurkitu zen 11.760 zenbakia daraman tomo batean. Artikulu hau sinatzen duenak lan honen transkribatzeari, berreraikitzeari eta ediziorako prestatzeari ekin zion duela urte batzuk, bere doktore tesirako gaitzat harturik.

⁷ *Antigüedades de Vizcaya* (1783) eta *Historia General de Vizcaya* (1797).

Ibarguen-Cachopinen lanera hurbiltzean, besteak beste, Leloren Kantua edo eresi eta kantu zaharrak. Bestalde, ez da harrizkekoa eskuz bi aldeetatik idatzitako 1.763 foliotan zehar oharkabean lerro hauen gaintetik igarotzea berri interesgarriagoen bila.

Kontuak kontu, Ibarguen-Cachopin kronika entzute handikoa bihurtu bada, filologiaren ikuspegitik duen interesagatik izan da, ez historiari egin diezazkiokeen ekarpenengatik. Izan ere, historiografiak *Kronikaren* egileak historiaren faltsifikatzailetzat ditu, *ipuin asmatzailetzat eta gertaeren desitxuratzaitzat*. Gure ustez, irudi honek Labayruk bere *Historia de Vizcaya*-n isuritako iritzietan du oinarri. Bere lanean ahalegin guztiak egin zituen Bizkaiko benetako historia berreraikitzeke, laino-artean zirenak argitzen saiatuz eta zalantzazko datuez ohartaraziz. Ahalegin horretan, batez ere XV. eta XVI. mendeetan idatzitako kronikek jaso eta handitu zituzten istorioekin egingo du topo, tartean *Ibarguen-Cachopin Kronika*. Ibarguen eta Cachopinek idatzitakoez ari denean luma haserretu egiten zaiola dirudi eta gehienetan kronikari hauek asmatutako "ipuienez" trufa egiten du. Horrela, Mundaka herriaren fundazioaz⁸, Arrigorriagako guduaz⁹, Jaun Zuriaz¹⁰ hitz egitean Ibarguen fantasiaren morroi dela dio eta bere kontakizunek ez dutela inolako irizpiderik. "Cantar de los Cántabros" eta Leloren Kantua izenez ezaguna den kantu apokrifoa eta bere hitzei eman zien azalpen historiko-fantastikoak ere ez dio mesederik egingo kronikarien irudiari.

Faltsifikatzaile eta asmatzaile irudi hori handitu dezaketen pasarte ugari aurkituko ditu irakurleak kronika honetan. Baina bertan datozen berri asko eta asko, batez ere Bizkaiko leinu handien historiari eta bando-kideen gatazkari dagozkionak, Labayruk berak ontzat eta zuzentzat eman zituen bere lanean

⁸ Labayru, E. (1895-1904), *Historia de Vizcaya*, Gran Enciclopedia Vasca, tomo I, p. 370.

⁹ Ibid., tomo I, p. 383.

¹⁰ Ibid., tomo I, p. 393.

hitzez hitz jaso zituenean. Irizpide onez jasoak deritzegu, gure ustez *Kronikan* kontatzen dena, denboran eta lekuan egileen garaira eta bizilekura hurbildu ahala, egiara ere hurbildu egiten baita. *Kronikaren* egileek zerbait “handitu” edo “asmatu” bazuten, antzinako garaien urrutian edo historiaren garai ilunen berrikerik ezean galdutako gertaerak izan ziren, eta jadanik asmatuak aurkitu zituzten XV. mendean eta XVI.aren hasieran idatzitako kroniketan eta arma-erregeen liburuetan. Euren garaian gertatutakoak kontatzeko, ordea, iturri fidagarriagoak aurkituko zituzten, ahozkoak barne, eta historiaren orriak betetzeko nahi adina berri, asmatzen ibili beharrik gabe.

Labayruren iritziz egia historikoen nahastaileen artean bi eskola aurki daitezke: bata, Llorente historialariak sortua¹¹, eta bigarrena “Bizkaiko”¹² seme apasionatuena. Azken hauek euren herriaren jaurgoari antzinatasuna eman nahian, nahasmenera eta iluntasunera baino ez garamatzen historia fantastikoa harilkatu omen zuten. *Ibarguen-Cachopin Kronika* talde honen barruan kokatzen du. Gure ustez Lope Agirrerri buruzko lerro hauetan egia agerrarazteko garrantzitsua izan daiteke Bizkaiko seme izatea, datuak eskurago izate aldera; apasionatua izan edo ez, kasu honetan *Kronikaren* egileek ez lukete sinisgarritasunik galdu behar¹³. Egia da Bizkaiko semei dagozkien pasadizoak gehiegikeria eta handikeriaz janzten dituela maiz, eta gertaera xumeak hazana bihurtzen direla, baina datu

¹¹ Llorente, J.A. (1806-1808), *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas*, Madrid, Imprenta real. Lan honetan kritika zorrotza egiten die aurreko mendeetako euskal historialariei.

¹² Gazteleraizko “Vizcaya” eta “vizcaíno” hitzek Euskal Herria eta euskaldunak izendatzen zituzten maiz XVI. mendeko testuetan.

¹³ *Kronikaren* fidagarritasuna dela eta, aipatu nahi genuke Angel Rodríguez Herrero Iturrizaren *Historia General de Vizcaya* -n (I, 286. o.) dioena, Labayru eta Carmelo Echegaray-ren aurrituzien aurka, Ibargueneren fidagarritasuna frogatuz “mojonera del reino de Navarra”-ren kasuan, dokumentu baten bitartez. Labayru eta Echegarayk asmaziotzat hartu zuten Nafarroako Erreinua Zornatzako ateetaraino iritsi zenekoa. Rodríguez Herrero arrazoia eman zion Ibarguen-Cachopin bikoteari.

objektiboak hor dira: pertsona izenak, datak, leku izenak, ekintzak, ... eta horiek ez lirateke baztertu behar narrazioaren janzkera anpuloso soilagatik.

Itzul gaitezen, baina, Lope Agirreri buruz *Kronikak* dioskuna aztertzeraz. Cachopinek Pedro Agirreri buruz hitz egiten digu, ez Lope Agirreri buruz, baina bistan da pertsonaia bera direla. Beharbada, Cachopin erratu egin zen, edo akaso Lope eta Pedro, izen biak zituen gure pertsonaiak. Batek daki. Egia esan, izaerarekin egokiago dator Lope, "otsoa", Pedro, "harria", baino. Goiko lerroetan azaltzen zaigunez, Lope, edo Pedro, Aramaioko Saola auzunean jaio zen, historiagileen esanetan 1511 eta 1516 urteen bitartean, Aramaioko jaun Gómez González de Butrón y Mujica zela. Baina aita hil egin omen zitzaion eta ama berriro ezkondu beharrean aurkitu zen, antza. Aramaion bertan aurkitu zuen senarra, Uribarri auzoko Agirre baserrian, hura ere alargundua. Ohikoa zen bezala, ama-seelek etxe berriaren izena jaso zuten eta Saolatik zekartena ahaztu. Estibaliz Agirrek, Loperen ugazaitak, lehendik ere ba omen zituen seme-alabak Agirre etxean eta haiek zituen oinordeko etxea eta hazienda partitzeko orduan. Lope Gasteizera bidali zuten zapatari ofizioa ikastera.

Loperen gurasoak Saolan bizi ziren etxearen edo haziendaren jabe izan balira, ez zuen ama alargunak handik alde egin beharrik izango eta, ziur asko, ondasun horien jabe izanik bigarren aldiz ezkondu ere ez zen egingo, eta Lope izango zen guztiaren oinordeko. Baina ama-seelek Agirrera joan behar izan zuten bizibide bila, eta Agirren amarentzat bai, baina tokerik ez Loperentzat. Lope, agian lehena izatetik, bigarren izatera igaro zen, edo "hamaikagarren" ... Hutsaren hurrengo ikusi ote zuen bere burua Agirrera iristean?

Ez dugu aurkitu Cachopinek Loperen jatorriari buruz dioskuna frogaz dezakeen dokumenturik, ez Uribarriko eta Azkoagako eliz liburuetan, ez Arabako Lurralde Artxibo Historikoko protokoloetan, ezta Aramaioko Udal Artxiboan

ere. Hala ere, badakigu Jesus Mari Elejaldek¹⁴ egindako lan handiari esker Uribarriko Agirre baserria zutik zela XVI. menderako eta gutxienez XV. mendetik ohiko zerga ordaintzen ziola Aramaioko jaunari. Elejaldek dioenez, 1556an Gil lizentziatuak Uribarrira egindako bisitan hamabi baserri zenbatu zituen, eta horien artean Agirre ere izanen zen, zalantzarik gabe. Agirre baserriko seme-alaben izenak maiz agertzen dira Uribarriko eliz liburuetan 1578 urteaz geroztik, urte honetan baitute hasiera gaur egun gordetzen diren liburuek¹⁵. Gaur egun Agirren ikus dezakegun etxea aski berria da, 1870 urtean eraikia, eta Agerre zein Agarre izenez da ezaguna.

Lopek bere burua *aitoren semetzat* zuela diosku Cachopinek, eta hala zen, baina egileak ez dio onartzen Lopek aldarrikatzen duen jatorri jaso hori. XVI. mendean “bizkaitar” izatea aitoren seme izatea zen, kristau zaharra, Espainiako koroarentzat zalantzarik gabeko bermea. Horren ondorioz, erresumaren administrazioa, eliza eta armada bizkaitarrez betea ageri zen. Zenbaitek ez zuen egoera hori oso atsegin, eta bizkaitarren antzinakotasuna eta garbitasuna zalantzan jartzen zuten txostenak eta liburuak hasi ziren agertzen. Cachopin eta Iburguenek, Garibay, Poza eta abarrek bezala, iritzi horiei aurre egin nahi diete eta euskal leinuen antzinakotasuna, betiko kristautasuna eta odol garbitasuna aldarrikatu nahi dute *Kronikan*, Felipe II.ari gogoraraziz bizkaitarrak beti borrokatu direla Espainiako Erregeen alde. Baina Lope ez, Lope traidorea zen Cachopinen pentsamoldean, eta Agirretarren leinuak ez zuen merezi horrelako orbainik bere historia distiratsuan, ezta aitoren semeek horrelako anaiarik euren artean.

Guk dakigula Lopek Oñatikoa zela esaten zuen, ez Gabiriakoa, baina litekeena da, Cachopinek dioen bezala, jato-

¹⁴ Elejalde Plazaola, Jesus Mari, 1989, *Ayer y Hoy del Valle de Aramaiona*, Diputación Foral de Álava, 158 eta 260 oo.

¹⁵ *Libro de Finados de Uribarri* eta *Libros Parroquiales de Uribarri*, microfilm nº 240, Archivo Diocesano del Obispado de Vitoria.

rriz Gabiriako Agirre etxekoa zela esaten aritu izana, aita handik etorria zelako edo. Izan ere, garaiko genealogian oso hedatua zegoen Izurtzako (Durango) Etxaburu etxeko seme bat Gabiriara joan zela eta bertan Agirre etxea eraiki zuela, eta etxe honetatik datozela izen bereko zein ezberdineko etxe asko. Gabiriako Agirre etxe horrek fama handia zuen behin batean bertako bi semek mairuen aurka burutu omen zuten balentriagatik eta esker gisa Nafarroako Erregeak emandako armengatik. Ezin dugu baztertu, beraz, Lope bere burua gores-tearren honelako istorioak kontatzen ibili izana.

Artean gaztetxea zela Gasteizera gogoz kontra bidalia, galbidean jarri zuen Lopek bere burua, ez egiteko larria burutu baitzuen, neska bat bortxatu, alegia. Jarritako zigorra ez zitekeen gogorragoa izan: urkatzea eta ondoren bere gorpua zatikatzea. Aitoren seme batentzat ez zegoen plebeio eta morroien modu berean exekutatu izatea baino zigor iraingarri edo lotsagarriagorik.

Baina aurkitu zuen modua patu latzari ihes egiteko. Bere leinukoen laguntzaz, abizenaren historian agertutako orbain lotsagarri hura garbitu nahirik, edo, beharbada, Loperen zoritxarrean dirutza ederra ateratzeko aukera ikusi zuen baten batekin egindako tratuaz, Lopek kaltetutako familiaren haserrea lausotzea lortu zuen eta iheserako bidea prestatu kartzelaria "oharkabea" harrapatuz. Ez dezagun ahaztu garai hartan Indietarako abentura azkar aberasteko modu segurutzat zuela askok eta askok, eta zer esanik ez norbera joan beharrean beste norbaitek egiten bazituen lanak. Gauzak modu batean edo bestean gertatu, Cachopinek aipatzen dizkigun diligentzia horietan Lopek zorrak utziko zituen, hain segur, baina berak buruan zuen jadanik zor horiek kitatzeko eta mundu injustu honi mendekua hartzeko balioko zion asmoa.

Lope ez zen, ez, berehalakoan etsitzen duten horietakoa. Lastres eta Seguín mediku txiletarrek Loperi egin zioten erre-tratu psikologikoa gogoratu nahi genuke hemen:

El segundón cuyo temperamento no le permite la actitud sumisa y el acatamiento incondicional, reacciona ante el hermano al que la ley y las costumbres han colocado encima. Reacciona con el resentimiento o con la rebeldía, que se desarrollan inicialmente frente a la figura ... del hermano mayor, pero que se proyectan luego al padre, al jefe, al Rey, a Dios.¹⁶

Etorkizuna ireki ziezaiokeen irtenbide bakarra Indietara joatea zuen. Urkamenditik libratzeko eta kartzelatik ihes egiteko burututako dilijentzien artean Lope Indietarako bidean jartzea ere izango zen, segur aski, eta horrela, 1534 urtean¹⁷ azkar aberasteko asmoz ontziratuko zen Sibilian Cartagena de Indias-era abiatzeko. Ez da bere izena ageri pasaiari liburuetan, eta ez gaitu harritzen, bere arrazoiak baitzituen ezkutuan ibiltzeko. Abentura honek izugarri erakartzen zituen ezer galtzekorik ez zuten pertsonak: plebeioak, soldaduak, bigarren semeak, ... Propaganda ofizialak agintzen zuen etorkizun opa-roak iragan eta bizibide iluneko pertsonak ere erakartzen zituen, eta agintarien permisibitatearen babesean erraz zitzaien Indietara ontziratzeke zegoen arautegi zorrotza gainditzea.

Vicens Vives-ek¹⁸ hiru nortasun mota aurkitu zituen hiru sa-soi ezberdinetan Ameriketara abiatu zirenen artean: nabigatzailea eta esploratzaile profesionala 1492tik 1520ra; konkistatzailea 1520tik 1550era; eta 1550etik aurrera kolonoa, tartean misiolariak, funtzionarioak eta mandatariak ohiko direla. Hiruetatik zuen zertxobait Lopek, eta aberastasun eta ospe goseaz gain askatasun nahia ere bazeraman fardeletan. Mundu Berria nahi eta desio guztiak ase zitzakeen paradisia zen, eskurazina zirudiena ere erraza zen lortzen. El Dorado urre-to-

¹⁶ Lastres, Juan B. eta Seguí, Alberto C., *Lope de Aguirre el Rebelde, Estudio histórico-psicológico*, Buenos Aires, 1942.

¹⁷ Loperen lehen bidaiaren urtea dela eta bi iritzi ditugu nagusi: Emiliano Josen iritzi (1953, *Ciencia y Osadía sobre Lope de Aguirre el Peregrino*, CSIC), 1537an egin zuen lehen bidaia, eta Lacartaren iritzi (1954, ikus 2. oharra); guk azken honekin egingo dugu bat.

¹⁸ Vicens-Vives, J. *Historia de España y América*, Barcelona, 1972.

kiaren mitoak ere ideia hau indartu egin zuen, tokia aurkitu eta azal-azalean omen zen urrea hartu besterik ez baitzegoen, bestelako nekerik gabe.

Soldadu eta konkistatzaile lanetan dirutza bilduta eta Espainiako koroarentzako merituak eginda, Lope itzuli egin bide zen bere sorterrira 1536. urtearen hasiera aldera, urte horretako martxoaren 30ean baita sinatua Lope Agirrereren biografiari argia ematen dion dokumentuetako bat: Erreginak luzatutako salbokonduktoa edo libre ibiltzeko baimena. Zertara etorri zen, baina? Gasteizen utzitako zorra kitatzera? Bere guda merituak aurkeztuta Justiziak gaztaroan egindako hutsa barka ziezaion lortzera? Ezin jakin, baina lortu zuena Ameriketara berriz itzuli ahal izateko pasaporteia izan zen, hau da, Erreginak ziurtatu egiten zion ez zela jazarria edo atxilotua izango Amerika eta Espainia arteko joan-etorrietan. Horrez gain, apirilaren 6an Nueva Toledoko erregidore izendatuko dute bere “zerbitzuengatik”, eta, dirudienez, 1537 urtearen hasieran Ozeanoa zeharkatu zuen berriro. Jadanik ez bide zuen ezkututzen ibili beharrik, legezko pasaporteia baitzuen; orduan, zergatik ez dugu oraingoan ere bere izenik aurkitzen Kontratazio Etxeko Pasaiarien Liburuan?

Luze gabe joan-etorriko bidaia berri bat egingo zuen. 1538an Espainiara zetozela La Habanatik hurbil naufragatu zutenen artean ageri da bere izena. Eta 1539an lehen aldiz eman zuen izena Pasaiarien Liburuan, Mundu Berrirako bidaian, dirurik gabe eta morroi beltz bat lagun zuela. Hau izango zen Espainiako lurak zapaldu zituen azken aldia. Zor guztiak kitatuak ote zituen jadanik? Ez al zuen bere sorterrian bizitza berri bati ekiteko modurik edo lekurik aurkitu? Ez, iraganarekiko zorrak kitatuak, etorkizuna eraikitzeko ordua iritsia zuen. Ameriketara aberastu, boterea eta fama eskuratu, eta behiala baztertua izan zen semea Ahaide Nagusi baten pare itzuliko zen sorterrira. Hori zen eta izan da indiano oroaren ametsa.

Itzuli bezain pronto, ordea, ez zuen gudua, liskarra eta mendekua besterik aurkitu. Berehala murgildu zen konkista-

tzaileen artean sortutako gudu zibiletan eta lurraldeen konkistak zekartzan gatazketan. Ameriketako gudu horietan, arerioen aurka zein inguruneko elementuen aurka (oihaneko bero itogarria, hasapiztiak, gaixotasun ezezagun eta bortitzak, gosea, egarria, ...), urteak joan eta urteak etorri, nork bere burua eta lortutako estatusa habesten egindako borroka horrek aparteko gudari bihurtu zituen, deabruaren seme ia. Ausartak eta trebeak ziren oso, beldurrik izateko astirik ere ez zuten, hurkoaren bizitzak garrantzi eta balio txikia zuen, giza portaera zuzenen eta moralik gabekoen arteko muga ezabatua zegoen. Lope itzuli zenetik hil arteko ibilerak aski ezagunak dira. Erabat murgildu zen hango gerra zibiletan, alde batean zein bestean, Erregeren eta bere ordezkarien alde ere hainbat neke jasan zuen, ... baina ez omen zion Erregek inolako esker onik erakutsi. 1560an, eskuin hanka txiki-txiki eginda zuela El Doradoren bila abiatu zen Pedro Ursuaren espedizioan. Ursua buruzagia hil eta hoterea eskuratu ondoren, Erregeri matxinatu zitzaion bere gutun ospetsu haren bitartez. Akitua, erabat etsita, alde guztietan etsaiak ikusten zituela, Elbira bere alaba bakarrari sabela zulatu zion inork ez zezan Agirreren izenik zikindu, eta gero, zain geratu zen bere borrokoak noiz iritsiko. Aurkitu zutenean, bi arkabuzkadaz hil zuten. Ondoren bere gorpua lau zati egin eta bideen bazterretan jarri zituzten. Gasteizen emandako epaia bete egin zen azkenean, nahiz arrazoia bestelakoa izan. Koroari desleial zitzaionari zer gerta zekiokkeen erakutsi nahi zen. Bere ondasunak erre egingo ziren eta bere ondorengoak zitaltzat joko zituzten aurrerantzean. Agirre sekula eta betiko traidorea izanen zen. Jakina, epaia ez zen bete, Lope ondasunik gabe hil baitzen eta zuen alaba bakarra berak akabatu baitzuen zetorkiokkeen etorkizun ilun hartatik libratzeko aitzakiaz.

Historiagileak, politikariak, psikiatrak, literaturagileak, zine-magileak, denetik aurki dezakegu Lope Agirreren bizitzaren inguruko ikerketen bultzatzaileen artean. Ikuspegiak ere anitzak izan dira eta horren karian ugari izan dira Lopek jaso dituen

kalifikatiboak: eroa, hiltzailea, lotsagabea, azkarra, krudela, ... eta baita “Askatasunaren Printzea”, “Jainkoaren Haserrea”, “Amerikako Independentziaren Aitzindaria” eta abar. Eroarena izan da hedatuena, beti ere gure garaiko ikuspegitik, bere ekintzek aztoratu egiten gaituztelako, kontuan izan gabe ero bati ez zaiola inor atzetik joaten eta ez duela bere garaikoen-gan erruki sentimendurik sortzen, pasioa baizik, aldekoa zein aurkakoa. Egokiena, ordea, Lopek bere buruari ezarritako goitizena da: erromesa. Bere buruari dion debozioak bultzatuta amai gabeko bideari lotzen zaion ibiltaria, otso ibiltaria.

Susmoak eta usteak nahi genukeen baino ugariagoak dira Lope Agirrerri buruz idatzi diren biografia eta lanetan. Gure artikuluhonek ere hainbat zalantza eta galdera utzi ditu, eta okerren bat ere izango du, baina gure asmoa Cachopinek Lope hil eta hogeitabat urtera idatzi zituen lerroak ezagutzera ematea izan da, ziur baikaude berak emandako datuak kontuan hartu beharrekoak direla eta Loperen biografiaren ilunguneei argia emateko ahaleginetan baliagarri izan daitezkeela.

Hondarribian, 2001eko Abuztuan.

Julen Arriolabengoa Unzueta.

Filologoa.